



EUSKAL HERRIKO EMAKUMEON ESKUBIDEEN GUTUNA SARRERA:ERREALITATEA MARGOTZEN

Milurteko berri honen hasieran, Mundu Martxarako nazioarteko sarea osatzen dugun emakumeok, gure eskubideekin zer gertatzen zen aztertzea izan genuen helburu. IZADIARENTZAKO MUNDUKO EMAKUMEON GUTUNA da lan horren emaitza, eta orain gure herrian bertan zehaztu nahi dugu lan hori, gure ustez, geuri dagozkigun eskubideen lorpenean aurrera egiten eta eskubideok beteko direla bermatzen duten mekanismoak exijitzen lagunduko digun tresna behar dugulako eta, era berean, borroka feministaren helburuak eta jarraitu beharreko estrategiak eguneratzeko. Ez da erraza izango, ez horixe.

Badira hiru hamarkada, herrialde honetan antolatutako Mugimendu Feministari errealitate patriarkalak eztabaidagai bilakatu duela, emakumeentzat problematikoa, bidegabea eta legez kontrakoa izateagatik; beraz ahalbidetzen duten arazoak bilatzen aritu izan da eta gizon-emakume guztiontzat hobea litzatekeen gizarterako proposamen alternatiboak eratzten.

Izan dira, bai, oztupoak bidean, baina ikuspuntu formal batetik, esan dezakegu berdintasuna izan badela: legezko eskubideak eta gure ugalkortasunaren kontrola konkistatu ditugu, goi-mailako heziketara ailegatu gara, lehenago guretzat pentsaezinak ziren lanbideetan aritu gara eta jendartean betetzen dugun funtzioaren gainean antzina zeuden sinesmenak behera bota ditugu... Orduan, hainbeste adierazpen, lege eta egitasmo izanda, zergatik gertatzen dira oraindik indarkeria sexista, diskriminazio, zapalkuntza eta ikusezintasun egoerak? Bi estatutan eta hiru administrazioetan banatuak gaudelarik lege ezberdinak dira. Emakumeok uste dugu ez dagoela benetako borondaterik, ez interesik, jendarte-guneetako esleipen hierarkizatua generoaren arabera aldatzeko, eta honi amaiera eman ahal izateko, jendarte osoaren jarrera aldaketa da beharrezkoa eta gizonezkoena bereziki, gizon izateagatik bakarrik dituzten pribilegioei uko egiten ikasi beharko dutelarik. Gizonak jaio egiten dira eskubidedun, guk borrokatu egin behar dugu, lortu nahi baditugu.

Eta lan egingo dugu lortzeko. Euskal Herrian bizi garen emakumeak: hemen jaiotakoak zein kanpotik etorriak, langabetuak, esplotatuak, lesbianak, sakabanatu eta kartzelaratuak, txiroak, sexua ogibide dutenak, etxeoandreak, nekazari eta abeltzainak, gazteak, zaintzaileak, erasotu eta kolpatuak, pentsiodunak, sindikalistak, intsumisoak, artisauek, ekologistak, euskaltzale eta feministak, EMAKUME GUZTIOK eduki nahi dugu gure eskubideen gutuna, gaur egun gure herrian bizi dugun egoera islatu eta gure desioak zehaztuko dituen. Patriarkatuak, mundu osoan berbera izanda, ez gaituelako era berean ukitzen. Badagoen jendartearen izaera eta egoera politikoaren arabera itxura ezberdinak izaten ditu.

Euskal Herrian biztanleriaren erdia baino gehixeago gara emakume, gero eta emakumezko gehiago ikus daiteke jendartearen arlo ezberdinetan (sozialean, kulturean, lan-arloan, sindikalean...), baina hala eta guztiz ere, botere eta erabaki guneetan gutxiengo gara: kristalezko sabaia delakoa da.

Balore ekonomiko eta politikoko arloetan oso ordezkari murriztuak, oso sektore zehatz eta feminizatu sartu gara lan munduan, eta gainera, eskalarik baxuenetan, gaizki ordaindutako sektoreetan eta kontraturik prekarioetan. Langabezian luzaroen egoten den pertsona taldea gara, eta beraz, zerbitzu sozialaren eta halakoen beharrik handiena duena... Prekarietatea eta bazterkeria dela eta, arreta berezia eskatzen duten sektoreak, alde batetik, etxeko langileak dira, Gizarte-segurantzaren erregimen orokorrak babesten ez dituelako, eta bestetik, sexu langileak, eskubiderik ez izateaz gain, jendarteak loidoztu egiten dituelako. Esanguratsua da arlo bi hauetan batzea herrialde txirotuetatik etorritako emakume gehienak; izan ere, Atzerriartasun Legearen arabera, lan ezegonkortasunera kondenatuta baitaude. Arreta berezia eskatzen du emakume baserriarren egoerak jasaten duen bazterkeriagatik, ingururako elikagaiak ekoizteak duen errekonozimendu



ezagatik, emakume baserritar asko laguntza familiarra, ezkonkide edo titular kide epigrafeen azpian ezelako errekonozimentu gabe daude.

Bizitzaren iraupenerako eta zainketarako lanen %80 emakumeok egiten ditugu, jakien eta elikadura katean emakumeen partehartzea %80koa da, baina lan horiek, sozialki eta ekonomikoki, ez dira inoiz aintzat hartzen pertsona guztien bizi-baldintzen ongizatea eta jendarte-antolaketa osatzen laguntzen duten jarduera bezala. Politikan eta ekonomian, erakundeek eta gizonek, etengabe baztertzen dute gure lana.

Emakumeen kontrako bortizkeria da giza eskubideen urraketarik larrienetakoa eta hedatuenetakoa gure jendartean, eta emakume jaio izateagatik bakarrik, geure kontra egiten diren indarkeria mota guztiak sartzen dira hor: sexu gehiegikeriak, derrigorrezko prostituzioa, laneko sexu erasoak, bikotekide ohiaren eskutik emakumeek jasotzen dituzten jipoiak, bai eta heriotza bera ere.... Mugimendu feministari esker, orain dela urte gutxira arte familia arazotzat edota arazo pribatutzat hartu izan den fenomeno hau, jendarteko arazo sozial eta politiko garrantzitsua dela ikusi da. Testuinguru honetan, nabarmentzekoa da botere publikoen ardurua zuzena. Nahiz eta gero eta salaketa gehiago egin, epaitegi bereziak sortu eta langile gaituak prestatu, emakumeok gizonen eskutik jasaten dugun biolentziak jendarteko gaitza izaten jarraitzen du.

Une honetan, emakumeon sexualitatea genero-agindu anitzek mugatzen dute, eta afektibitate eta sexu-portaerarako jarraibide zehatz batzuek markatzen dute. Sexu-heziketak zeri begiratzen dion ikustea besterik ez dago: heterosexualitateari eta koitoari edota nahi ez diren haurdunaldien prebentzioari. Kontrazepziozko neurriak geuri zuzentzen zaizkigu ia beti. Abortua kasu jakin batzuetan baino ez da onartzen. Hegoaldean bada Izatezko Bikoteen Lege bat, emakume lesbianen eskubideak emakume heterosexualenekin parekatzen dituena, baina, hala ere, lesbianok ikusezin jarraitzen dugu, identitaterako ezelako keinu txikiena egitea ere zaila delarik.

Edertasun femeninoaren gurtza ez da desagertu, aitzitik, masifikatu egin da, era guztietako produktuen etengabeko ekoizpenean eta kontsumoan oinarritzen den sistema ekonomiko honi esker. Kontzientzia kolektiboan barneratu den guraria da, betiko edertasuna eta gaztetasuna edukitzea, politagoak, argalagoak eta erakargarriagoak izatea... desiragarriagoak azken batean, eta hori lortu ahal izateko, arropa eta kosmetikoak erosi behar dira, neurriz kanpoko gimnasia saioak eta kirurgia arriskutsuak egin, zenbaitetan nahita gosea pasatzeraino ere. Kultura unibertsala da, eguneroko eginbeharra, emakumeok geure buruaz eta munduan dugun estatusaz daukan ideari eragiten dion giza agindu bat.

Euskal herriko emakumeok, beste gatazka politiko bat bizi dugu, gatazka politikoa, eta herri honetako partaide garen heinean, gure eskubidea da gatazkaren konponbidean parte hartzea eta eragitea.

Hau dena ez da kasualitate hutsa. Emakumeok, gizonek eta gizonentzat eraikitako munduan sartu gara. Mundu honek, emakumearen ezkutuko lanaren menpe dagoelako baino ezin dezake funtzionatu, eta horrela, ezinezkoa da emakumea izanda eroso sentitzea. Emakumeok gerok eta Mugimendu Feministak egindako presioari esker, batez ere, hoberanzko aldaketak izan direla ukatu ezin badugu ere, aldaketek, eurekin batera, kontuan hartu eta aurre egin behar zaien beste erronka batzuk ekarri dituzte. Horretantxe dihardugu. Feminismoak gai izan behar du, XXI. mendeko emakumeok aurrean ditugun kontraesanei erantzun politikoak eta jendarte ereduak emateko.



JENDARTEA ERAIKITZEN

Eskubide gutun honen helburua beste jendarte bat osotzea da, non harremanak ez dira hiererakikoak izango eta beste baloreetan oinarrituak egongo dira. Gutun honek emakumeentzako askatasunean, berdintasunean, elkartasunean, bakean eta justizian oinarrituko da.

- **ASKATASUNA**, guk nahi duguna eraikitzeke garaian, geuk erabaki ahal izateko, bai maila pertsonalean bai kolektiboan, beti ere besteekeko errespetuan ulertuta.
- **PAREKIDETASUNA**. Sexu banaketa gaindituz pertsona bakoitzak bere identitate propioarekin baloratua izatea, eskubide eta betebeharrak berdinekin. Emakumeon parte hartzea eremu guztietan ziurtatuz.
- **ELKARTASUNA**, gizon eta emakumeen artekoa, herri eta nazioen artekoa, baina, batez ere, emakumeen arteko elkartasuna, "on eta gaiztoen" bereizte patriarkala desagerrarazteko motore izan gaitzake eta. Elkartasuna oinarrituz, elkarriketan, elkarlanean, ulermenak, kolaborazioak, ... besteren izatea errespetatuz eta konpromisoa eta inplikazioa exijituz.

Bakea eta Justizia, balore feministatzat hartu ditugun, askatasuna, parekidetasuna eta elkartasuna ezartzearen ondorio izango direla ulertzen dugu. Balore hauek logika feminista batetik lehenesten baditugu, bakea eta justizia ziurtatuak egongo baitira.

Elkarbizitza esparru ezberdinetan ematen diren ezberdintasun sozialak sorrarazten dituzten egiturazko eta errotiko zergatiak konpontzen direnean, etorriko dira bake eta justizi egoera.

Bakea ez dugu ulertzen, gerra egoerarik nahiz armarik gabeko egoera bat bezala, oraindik eta areago, bakea askoz ere sakonagoa den kontzeptu gisa ulertzen dugu. Ez da bakerik izango, gizonezkoen eta emakumezkoen arteko ezberdintasunak, nahiz klase edo etnia ezberdintasunak mantentzen diren bitartean, emakumeon kontrako indarkeria dagoen bitartean. Ez eta, ezarritako ideologia patriarkarrak parekidetasunean oinarrituriko jendarte eredu berria oztopatzen duela ulertzen ez den bitartean, ezta emakumeen kontrako indarkeria existitzen den jendarte dagoen heinean. Ez da bakerik izango, bigarren mailako herritarrak eta ezkutuan eta ikusezintasunean dauden herritarrak irauten duten bitartean.

Emakumeek gizonezkoekiko menpeko eta ezberdintasun egoeran iraunarazten dituen gatazka sozial historikoa konpontzean, hitz egingo dugu emakumeentzako justiziaz.

HERRITARTASUNA

Egungo herritartasunaren kontzeptuak, gehien nagusitzen den giza taldea, gizonezkoena unibertsala kontsideratzen du. Herritartasunaren ulermen honek emakumeak ikusezinak izatera eramaten gaitu. Emakumeok unibertsaltasun horretan barneratzean ikusezin bihurtzen garelarik.

Emakume eta gizonen arteko harreman ez parekoek, giza eskubideetan dute zeresana. Honela, giza eskubideak adostu zirenean, emakumeok herritartasunetik at geratu ginen. Giza eskubideak eremu publikoaren baitan definitu ziren, eskubide hauek espazio publikoan onartu eta ezagutarazi zirelarik. Honela, emakumeoi atxikitzen zaigun eremu pribatua, eskubideak zerrendatzeetik kanpo geratu zelarik.

Hala ere, berdintasun formalaren lortzea ez da nahikoa benetako parekidetasuna eskuratzeko. Herritartasuna, eskubideak izateko eta hauek betearazteko eskubide gisa ulertuta, emakumeok ere



erabakiak hartzen diren jendarteko eremu guztietan berdintasunez parte hartzeko eskubidea barne hartzen (inplikatzeko) du.

“Publikoak” ezin du jarraitu gizonezkoen propietate izaten eta “pribatua” berriz emakumeen dominioa. Gainera, bi eremu hauek ez daude banatuak, elkarlotuak daude eta beraz dikotomia hau apurtu eta berreraiki beharra dago bi eremuak herritarren eskubideak biltzen dituzten eremu gisa kontsideratuz.

Herritartasunaren kontzeptu berri bat eraiki nahi dugu, zeinak kontutan hartuko duen “pribatu” deitzen zaion eta emakumeoi lotu izan den eremua, zeinaren lanik garrantzitsuena pertsonen zaintza eta haztearen ardura izan den, hau da azken batean egon daitekeen kezkarik sozialena. Pertsonen biziraupenerako ezinbestekoak izan diren jarduerari garrantzia eman eta izendatu nahiz berreskuratu nahi ditugu, batez ere orain arte ezkutuan eta onarpen sozialik gabe iraun dutenak.

Herritartasun eskubideak berplanteatu nahi ditugu, baina ez gizonaren eta bere onuraren arabera, baizik eta ezkutuan baina bizitzarako beharrezko diren jarduerak betetzen dituzten emakumeen arabera baizik.

ESKUBIDEEN ZERRENDA

ESKUBIDE POLITIKO ETA ZIBILAK

- Emakumeok Euskal Herrian libreki zirkulatzeko aukera eta bere egoitza nahi duen tokia jartzeko eskubidea, bere jaioterria edozein izanik.
- Emakumeon, norbanakoen eskubideak ezin dira familiaren edo elkarbizitza-unitatean eskubideetan galdu
- Emakumeak duintasunez, libreki eta aukera berdintasunez bere bizi proiektua egin eta berau oztopatua edo moztua ez izateko eskubidea.
- Emakumeon askatasuna eta segurtasun pertsonala izateko eskubidea.
- Emakumeon kontrako indarkeriarik gabe bizitzeko eskubide
- Emakumeok edozein eremuetan parte aktiboa izateko eta erabakitze eskubidea.
- Modelo heterosexista gaingiduz, emakumeok nahi ditugun harreman afektiboak libreki hautatzeko eta garatzeko eskubidea.

ESKUBIDE EKONOMIKO ETA SOZIALAK

- Emakumeak ekonomia-eremuak kontsideratuak izateko eskubidea.
- Enplegurako eskubidea.
- Emakumeak izateagatik lan konkretu batzuk (etxeko lanak eta zaintza) egitera derrigortuta ez izateko eskubidea.
- Enplegu aukera eta baldintza berdinerako eskubidea.
- Emakume bakoitzak beharrezkoak dituen prestatzio ekonomiko eta gizarte laguntzak jasotzeko eskubidea.
- Emakumeak bakoitzak zaindua izateko eskubidea du.
- Emakumeok gure bizitzako esparru desberdinak nahi dugun moduan bateratzeko eskubidea.
- Emakumeok etxebizitza duin bat izateko eskubidea bermatu behar dute.
- Hezkuntza hezkidetzailerak jasotzeko eskubidea



- Emakumeak dituzten beharrei erantzungo dion osasun zerbitzu integral eta publikoa izateko eskubidea.

ESKUBIDE KULTURALAK

- Balore feministetan oinarritutako Euskal kultura sortu, transmititu eta garatzeko eskubidea.
- Balore feministetan oinarritutako kultur aniztasuna sustatzeko eskubidea.
- Hizkuntza ez sexista erabiltzeko eta garatzeko eskubidea
- Jai herrikoi eta parekideak izateko eskubidea.
- Edozein kirolean emakumeok besteen maila berdinean egoteko eskubidea.
- Sexuen arabera kirol banaketak ekidin eta parekotasunean jokatzeko eskubidea.
- Hezkuntza formala eta ez formala parekidetasunean jasotzeko eskubidea.
- Hezkuntza sistema propioa, laikoa, parte hartzailea, demokratikoa, publikoa eta hezkidetzaila izateko eskubidea.

EMAKUMEON GARAPEN INTEGRALERAKO ESKUBIDEAK

- Emakumeak bakoitzaren identitate sexuala edozein izanik ere, bere sexualitatea aske garatzeko eskubidea
- Lesbianak gure sexualitatea eta harremana aske garatzeko eskubidea
- Amatasuna nola bizi nahi dugun aukeratzeko eskubidea.
- Gure gorputzaren inguruan erabakiak aske hartzeko eskubidea. Abortu libre eta doakoa bermatu behar da.
- Edozein jakintza arloan, medikuntzan adibidez, emakumeak subjektu eta objektu izateko eskubidea.
- Emakumeak dituzten beharrei erantzungo dion osasun zerbitzu integral eta publikoa izateko eskubidea.